

Homofobiaren aurka, Hezkuntza

Maiatzaren 17a Homofobia eta transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna da, 1990ko maiatzaren 17an Osasunaren Mundu Erakundeak buruko gaixotasunen zerrendatik homosexualitatea kendu baitzuen. Honakoa egun aproposa dugu pertsonen gaineko eskubideak hizpide izateko, bai eta giza aniztasunaren gainekoak ere.

Anistasun sexualarekiko errespetoari dagokionez, ezin dugu esan iaz baino hobeki gaudenik, zoritxarrez. Hainbat eskubide erdiesteko bidea geldiezina dela ematen du, eta horren isla da gero eta herrialde gehiagotan onartzen ari dela sexu bereko pertsonen arteko ezkontza, eta hau, dudarik gabe, aurrerapauso ederra da bisibilitatearen borrokan.

Baina Estatu Frantziarrean berdinasunezko ezkontzaren aurkako manifestazio jendetsuak ere ikusi egin ditugu. Estatu Espainoleko Barne Ministroaren adierazpenak harridura eta lotsa handiz bizi izan ditugu esan duenean homosexualen arteko ezkontzek "ez luketela izan behar ezkontza naturalek duten babes bera" eta ideia atzerakoi hau sostengatzeko honako arrazoia: "ezpeziaren biziraupena ez bailitzateke bermaturik izanen".

Eraso homofoboak izan badira. Iruñeko bi mutil gazteren salaketa ezagutu dugu berriki. Kanean elkar muskatzen ari zirela sasi-gizontxo talde bat hurbildu eta kolpeka hasi zitzaizkien. Iruñeko Udalak erabateko gaitzespena helarazi die erasotzaileei, hiriaren arbuioa dutela esanez, eta erasotuak izaniko gazteekiko elkartasuna agertuz. Positiboa da erakundeek honelako adierazpen publikoak egitea, eta Udalak ahoz batek Iruñea " homofogia, transfobia, lesbofobi eta bifobiarik gabeko hiria" izendatu izana aurrerapausoa da, baina honelako adierazpen puntual eta sinbolikoak ez dira nahikorik. Sentsibilizazio kanpainak ez ezik eskoletara ere eraman behar da lan hau.

Hezkuntza sistemak genero indarkeria gelditzen lagundu behar du, bai eta sexu joeraren ondorioz ematen den bortizkeria ere; baina, zoritxarrez, hezkuntza sisteman aldaketa sakonak egiteko asmoarekin aurrera doa PPrene Gobernuak. LOMCE lege atzerakoia da eta ,besteak beste, hiritartasunerako arloa kendu nahi dute, eta horrekin batera gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aipua, homofobia zer den lantzea... Gero eta beharrezkoagoa da ikasleekin modu transbertsalean bizikidetzaz arazoak sortzen dituzte gaiak eta mintzagai etikoak lantzea, eta modu horretan errespetu faltari zein bizikidetzaz arazoei modu egokian eginen diegu aurre, horiexek izaten baitira gure ikasgeletan askotan ematen diren arazoak.

ALDARTEK (Gay, lesbiana eta transexualen arreta zentroa) berriki aurkeztu du Bigarren Hezkuntzako ikasleen aniztasun afektibo-sexuala aztertzen duen txostena, eta hainbat datu esanguratsu bezain kezkarri agertu dira: ikasleen artean %60 inguruk noizbait – edo askotan –

homosexualitatearekin zerikurik duen irain edo erasoak ikusi izan ditu eskolan. Sexu bereko bi pertsona musukatzen ikustean nola sentituko liratekeen galdetu zaienean, neskek jarrera positiboagoa agertu dute, eta gehienek neska eta mutila balira bezala sentituko liratekeela erantzun dute; mutilen erantzunak anitzagoak dira, baina bada datu kezkarri bat: %12k erantzuten du " pribatuan egitea dute nahi dutena, baina publikoan ez". Honetaz gain, %60k dio ez dakiela nolako erreakzioa izanen luketen lagunek gay, lesbiana edo transexuala dela aitortzean. Datu honek gazteentzat aniztasun sexuala tabua dela pentsarazten digu; hala ere, neskek dira konfiantza handiagoa dutenak lagunengan. Aniztasun sexuala gutxitan dugu hizpide gure ikasgeletan, irakaleok ez dugu modu zuzenean hitz egiten aniztasun sexualaz eta genero identitateaz, eta horren ondorioz ikasleek ez dakite nola erantzunen duten lagunek eta irakasleek, eta adin horretan taldearen garrantzia handia da. Ziurgabetasun eta beldurraren ondorioz hainbat ikaslek ez du informazio hori inorekin partekatzen, eta beldur egoerak depresiora eramateko arriskua areagotzen du. Gazte horiek bizi duten egoera aztertzeke hainbat ikerketa egin dira mundu mailan 2005 urtetik hona eta horietan guztietan honakoa ondorioztatu da: gazteok egoera zaila, lasgarria zenbaitetan, bizi dute eta bere buruaz beste egiteko arrisku handiagoa dute adin bereko gazte heterosexualek baino. Datu hau benetan kezkarria da. Estatu Espainolean, berriz, ez dugu honelakorik baieztatzen duen daturik, ikasleen artean ematen diren suizidio ikerketetan ez baita kontuan hartzen homofobiaren aukera.

Eskolak elkarrizketa giro lasaia bultzatu behar du, eta giza garapenean bidean sexu zein genero aniztasunarekiko errespetua abiapuntu ezarri behar du. Ikasleek ulertu behar dute onartu ez ezik aniztasun sexuala baloratu behar dugula. Besteekiko enpatia landu behar dugu, hots, norberaren identifikazio mental eta afektiboa besteekiko.

Eta zeregin horretan ezin ahaztu dugu haurra hezteko tribu osoa behar dugula.

STEE-EILAS.